

NEREA LOIOLA PIKAZA

OR AI RE



AUKERATU ZURE
ABENTURA
+
IHES-LIBURUA

ESKAPU LIBU
RUAK

erein





Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru laguntza jaso du.

Liburu honen egileak Zarautzko Udalaren diru laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko azaroan

Azalaren eta liburuaren diseinua:
Iván Landa | Erein

Maketazioa:
Iván Landa | Erein

© Nerea Loiola Pikaza

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-030-8
L. G.: D 988-2025

EREIN Argitaletxea.
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20560 Oñati
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

NEREA LOIOLA PIKAZA

OR AI RE

AUKERATU ZURE ABENTURA
+
IHES-LIBURUA

ESKAPU LIBURUA



erein

*Zeruari galderak egiten dizkionari.
Inoiz, irakurtzea hegan egitea dela sentitu duenari.*

Orhi, Xuhar eta Andoniri.

“Alferrik da korrika egitea, bidea beti bera bada”

Carmen Laforet

Gurasoek badute berezko abildade bat momentu dibertigarrienak izorratzeko.

Bestela, nola azaldu, hain zuzen ere, orain egin duten proposamena?

Zertara jolastu adostea nekeza izan da, anai-arreba nagusiei erreguka ibili behar izan diezue zuekin aritzeko, bi talde osatzen denbora asko galdu duzue... Eta justu-justu orain, dibertsioaren unerik gorenean, agertu dira gurasoak kafetxoa hartzetik, zer eta txango bat proposatzera. Proposamena, omen. Bai horixe. Denok dakizue agindua dela.

- Gaztelua ikustera? –galdetu duzu, kexua aurpegian.
- Orain? –jarraitu dizu Kantaurik.
- Han goraino igotzea nahi duzue? –gaineratu du Orhik.
- Bai zera! –kexatu da Endai, besoarekin keinuka.

Kantauri, Orhi eta Endai zure lagunik onenak dira. Laukote banaezina osatzen duzue. Horregatik, pozez txoratzen jarri zineten gurasoek iragarri zutenean elkarrekin asteburu-pasa joango zinetela Maulera.

—Marmarrik ez, bertan-bertan dago eta —esan du zure amak.

—Zerbait egiteko aprobetxatu beharko dugu arratsaldea, ezta? —gehitu du Kantauriren amak, haren alde.

Mesedez! A ze mania duten helduek beti zerbait egin beharrekin. Polizia eta lapurretara jolastea ez al da ba zerbait egitea?

Giroa goxatu nahian edo, Mauleko gazteluaren historia kontatzen hasi da Kantauriren beste ama: 800 urte omen ditu, guda ugari izan dira bertan, behin goitik behera erre zutela, kartzela ere izan zen, batzuen esanetan, sorginduta dagoela... eta bla-bla-bla.

Tira, azken horrek —sorginkeria kontuak— piztu dizu interes pittin bat. Baina Kantauriren ama aditua da ziria sartzen, eta ez dago fidatzerik.



Parean aurkitu dituzun hartxintzar guztiei ostikoka egin duzu gaztelurako bidea.

Iritsi bezain pronto, Orhik oihukatu dizu:

—Lagundu ateari bultzatzen, bakarrik ezin dut!

Korrika pasatu duzu bion artean dagoen harrizko zubia eta, a ze atsekabea zuena, bultzaka eta bultzaka aritu ondoren, atea itxita dagoela ulertu duzuenean.

—Itxita dago! —deiadar egin dio Orhik, haserre antzean, atzetik datorren guraso taldeari.

Orduan, Kantauriren ahizpetako bat saiatu da atea irekitzen. Alferrik. Gero, Orhiren anaia nagusiak hartu dio txanda.

Zer uste dute, ba? Azaosto-besamotzak zaretela?

Eta horra hor: Endairen aita eta zure ama ere bultzaka hasi dira. Azkenean, zuei arrazoï emateko, noski:

—Itxita dago.

Tira, faborez! Direnak eta bi esateko gogoia duzu; zuen aha-legina gutxiesteak izugarrizko amorrua ematen dizu. Helduak beti berdin.

Inori ez al zaio bururatu telefono mugikorrean gazteluaren ordutegia begiratzea? Ez da izango pantailari itsatsita egoten ez direlako!



Pixka batera, erabaki dute arratsaldea gazteluaren kanpoaldean pasatzea. Helduek erabaki dute. Gauzak lasai daudenean, asanbladak egiten dituzue erabakiak denon artean hartzeko; baina halakoetan, zuen iritzia ez da kontuan hartzen.

Harresi inguruko txoko sastrakatsuak ikusita, ezkutaketan ibiltzea erabaki duzue. Zozketa egin, eta Kantauriri egokitu zaio bila hastea. Eta justu korrika egiteko prest zaudenean, amak deitu dizu:

—Eraman ezazu zure neba. Gustura ibiliko da.

Zer!?

Zure nebak Xuhar du izena eta hiru urte besterik ez ditu. Taimainaz, ederki ezkutatu daitekeen arren, arazo handi bat dauka: ez daki geldirik egoten.

Ezezkorik onartuko ez zaizula jakinda, muturtuta heldu diozu esku txikiari. Korrika abiatu zarete. Kantauri jada zenbatzen hasi da, eta ez duzue urrutira joateko astirik. Zubiaren azpian ez kutatu orduko entzun duzu haren ahotsa:

—Bale, bale! Banoa!

Isilik egoteko keinua egin diozu hatzarekin Xuharri, eta, Kantauri non dabilen ikusteko, une batez irten zara zubipetik. Unetxo batez. Baina nahikoa izan da: Xuhar desagertu egin da.

Zur eta lur geratu zara.

Bila hasi orduko, gazteluko horma estaltzen duten landare luzangen atzean zurezko ate txiki bat ikusi duzu. Zu katuka sartzeko modukoa. Xuhar tente kabitzeko modukoa. Eta irekita dago.

Burua barrurantz sartu duzu. Iluntasuna. Besterik ez.

—Xuhar! Xuhar, hor al zaude? —oihu egin duzu.

Erantzunik ez.

Iluntasunak beldurtzen zaitu, nebarik gabe amarengana bueltatzeak izu-laborria eragiten dizu, eta zure nebatxoari zerbait gertatzeak odola gatzatzen.

ZER EGINGO DUZU?

Atea zeharkatu eta **Xuharren bila joan nahi baduzu**, zoaz 117. orrialdera.

Nahiago baduzu zauden lekuan **Xuharren zain egon**, zoaz 146. orrialdera.

